

Unai Basurkok 2012.Urteko Proiektuaren Saria jaso du

2013ko, irailaren 9a astelehena.- XXVII. Asturiaseko Printzipearen Trofeoaren bigarren eguneko protagonistak Nazioarteko Terras Gauda Bela Sariak izan ziren. Baionan (Galizian) izan zuten leku pasa den irailaren 7an (larunbata). Giro ona nagusi izan zuen zeremonian, jaso zuen Unai Basurkok Pakea Bizkaiari eman zitzaion 2012.Urteko Proiektuaren Saria. Epaimahaiak nabigatzaile euskalduna buru duen proiektuaren “giza eta kirol balioak” azpimarratu zituen eta horrek “espedizio ezberdinetan ingurumen naturalaren eta garapen jasangarrirako heziketarik egiten duen sustapena, hala nola ingurumenarekiko errespetuaren aldekoa eta baita baliabide naturalenganakoa” aipatu zituen.

Basurkok adierazi du sari hau jasotzeak “ilusio handia” egin diola. “Pakea Bizkaiaren talde osoarentzat da saria”, azpimarratu du Portugaletekoak. “Kirolaren jatorria giza-balioen garapenaren aldekoa jarraitu behar du izaten. Ez da beti garaipenaren menpe egon behar, izan ere, esfortzua eta dedikazioa dira garaipena ere bere horretan”, baieztatu du. “Azken hiru urte hauetan 35.000 milia baino gehiago nabigatu ditugu. Tripulazio nabigatzaile bezala trebatu da eta baita pertsona bezala ere. Arrakasta, nabigazioak arazorik gabe amaitu izana da eta etxera Pakea Bizkaiarekin itzultzea”, dio.

2012.edizioko sarituak honakoak izan ziren:

- Urteko Proiektua: Pakea Bizkaia
- Urteko estropadalaria: Tamara Echevoyen
- Urteko ORC 0-1 ontzia: Cenor
- Urteko ORC 2-3 ontzia: Codaste
- Estropadetako Talde Onena: Plis Play
- Bela Kirolari laguntza gehien eman dion erakundea: Turismo Rías Baixas

Komunikazioaren Mariano Aguado Saria: Panorama ekoizpen-etxea

Informazio gehiago eta elkarrizketak- Komunikazio Atala: Nagore Anabitarte - Tel. 00 34 943 50 39 55- 688 661 690 – E-mail: comunicacion@pakeabizkaia.com - **Informazioa, irudiak eta bideoak:** www.pakeabizkaia.com/ftp

Bayonako Yateen Monte Real Klubaren Prentsa eta Komunikazio Zerbitzua: Juan Caballero - Tel. 00 34 629 85 46 17